

LAMATA, R. eta MÍNGUEZ, R. (Koord.) (2003)

*La construcción de procesos formativos en educación no formal.*  
Madrid: Narcea

Esku artean duzun liburu hau, hezkuntza ez formalean lan egiten duten praktikoen artean oso zabaldua dagoen eskarmentutik abiatzen da, hau da, «a pesar de contar con toda la historia de la pedagogía y del aprendizaje, nos sentimos a veces faltas de modelos propios dentro de la educación no formal» (96 orr.).

Beraz, egileak, beraien praktiken zentzu propioaren bilaketaren ildotik, lehenengo kapituluan pedagogia eta aprendizaiaren azken hogeita hamar urteko historian zehar izan diren joera eta eredu desberdinak laburbiltzen saiatzen dira. Hala ere, irakurtzen jarraitzen baduzue, egileen oinarritzko formazio psikologikoa agerian gelditzen dela ikusiko duzue. Dena den, ikuspegi teoriko hori albo batera utziz, kapitulua bukaeran gomendio praktikotik batzuk ematen dizkigute, gure praktikei argitasuna, sistema eta irekitasuna emateko. Bakoitzak bere hezkuntza esparruan erabiltzen dituen pentsamolde, prozedura eta jokabide propioak ager arazteko beharrezana eta erabilgarritasuna azpimarratzen dute.

Orain arte erabilitako programazio formatu sistemiko eta teknokratikoa alde batera utziz, autoreek programazioa martxan dauden gure hezkuntza praktika ez formalean oinarritzko klabe teoriko, agente eta prozesuak baldintzatzen dituzten testuinguruak kontutan hartzeko aukera aproposa dela aldarrikatzen dute. Hau da, gure praktikak programazio formatura egokitu beharrean, programazioaren funtzioa praktika edo hezkuntza prozesuen eraikuntzei zentzua emateko izan behar da. Argi gera dadila, programazioa, hezitzaileok proposatu nahi duguna aurrera eramán ahal izateko tres-

na praktiko eta erabilgarria da eta, inoiz ez, gure praktikak eredu formalari egokitzeko bide tekniko bat.

Horrela, egileak, liburuaren mamia den bigarren kapitulu osoan zehar, programazio prozesuan ezagunak diren osagarri formal desberdinak (helburuak, edukiak, metodologia, baliabideak,...) eta eskola kulturekin lotuak dauden elementuak desmitifikatzen saiatzen dira, gizarte errealitate ez formalean aplikatzeko beharrezkoak izango diren argibideak emanez. Adibidez, helburuak definitzerako garaian, honako zehaztasun hauek azpimarratzen dituzte: erakundeko helburuak aprendizaiaren helburuekin edo jarduerarekiko helburuak aprendizaiarekiko helburuekin ez nahastea; are gehiago, gelako simulazio giro eta egoerak, bizitzako errealitate egoerekin bereizi behar dira, bizitzan aprendizaiaren arazoez gain, gizarte eta pertsonal dinamikak eta aldaketak baitaude jokoan.

Bestaldetik, esan beharra dago, liburu honen emaitza bakarra ez dela ikuspegi kritiko eta deseskolarizatzailea soilik ematea. Horrez gain, teoria eta praktikan edo metodología intuitibo eta deduktiboan erabiltzen diren aplikazio eta sintesi anitzak eskaintzen dizkigute, edukien trataera, metodologia, baliabideak eta ebaluaketa motak aztertzeke aitzakiaz. Beraz, sintesi teoriko-praktiko bat egin ahal izateko hamaika saiakera eta argipen aurkitu ditzakegu liburu honetan.

Azkenik, zure irakurketarekin aurrera jarraitzen baldin baduzu, liburu honen ezaugarri nagusia honako hau dela konturatuko zara: hezkuntza prozesu ez formaletako eraikuntzei zentzua eman ahal izateko, pertsonaren eta bere bizitza baldintzatzen duten testuinguru, desberdintasun eta aniztasuna abiapuntutzat hartu egin behar dira, hezkuntza prozesu ez formalaren zentzua pertsonengan kokatu behar delako, ez hezitzailearengan edo instituzioetan. Zer iruditzen zaizu?

*F. Basurco Motrico*

HAYDON, G. (2003)

*Enseñar valores. Un nuevo enfoque.* Madril: Morata

Liburuak, eguneroko presioen gainetik, Hezkuntzaren balioetaz gogoe-tak egitearen beharra planteatzen du. Izan ere, egilea nola eta zertarako joan nahi dugun zehaztea «gauzak nola egin» eta teknikak ezagutzea bezain garrantzitsua dela konbentziturata dago. Honela bada, gogoeta horiek egin ditzagun materiala eskaintzen digu, sei zatitan banaturik.

Lehengo zatian Hezkuntzaren oinarrizko helburu orokorrak ditu aztergai eta bigarren zatiari balioen esanahia aztertzea dagokio, hain zuzen ere, anizta-

sunaren ikuspuntutik. Balioen aniztasunak, pertsonen arteko arazoak sortarazten baditu ere, gatazkak gainditzea erraztu dezake, bereziki, testuinguru egokia dagoenean eta, halaber, tolerantzia. Beraz, egilearen ustez tolerantzia litzateke giltza, bide honetatik aniztasunaren eremua eraikiz eta baikor izan dadin.

Hirugarren zatian moralitatea zertan datzan eta horren inguruan sorturiko eztabaida azaltzen da. Balio moralek pertsonen arteko harremanak erregulatzeko balio dute, baina moralitatearen osagairik nagusienak zeintzuk diren ez dago hain garbi. Sarritan justizia printzipioak azpimarratu badira ere, osagairik garrantzitsuena bezala, badirudi, hainbat aldiz, gatazkak ez direla konpontzen printzipio orokorrak aplikatzeagatik, baizik eta besteekiko enpatia eta interesa azaltzen dugulako, egileak oso ondo azpimarratzen duenez. Justizia-printzipio eta besteekiko enpatiaren arteko oreka erabat beharrezkoa dugula argitu ondoren, beste arazoa aztertzen du. Bere ustez, balio moralen kontra joateko joera ezin da justifikatu autonomiaren izenean, gizarte-kontrola txarra dela esanez. Elkarrizketa eta akordioetara iristeko aukerak ematen badira kontrolak autonomia handitu besterik ez du egiten.

Laugarren zatian, eskolak gizarte laiko eta konplexu batean jokatu behar duen paperari buruzko kontrobertsia batzuk aztertzen dira eta, hain zuzen ere, balio zehatz batzuk lantzearen aldeko joera agertzen da. Liburuaren egileak, ildo honetatik, bereziki, hiru proposatzen dizkigu: ingurunekeo babesa, gatazken konponbide pazifikoa eta hiritartasun balioak

Bosgarren zatiak hezitzaileen paperaren inguruan gogoeta batzuk planteatzen ditu. Transmisioa baztertu gabe, argi gelditzen da, hezitzaileen eginkizuna konplexuagoa dela. Hezitzaile on batek mugak ezarri beharko lituzke, arrazontzeko eta eztabaidatzeko testuinguru egokia sortu nahi baldin badu bere gelan. Azken batetan, pertsonen arteko gatazkak sortzen direnean elkarrizketa litzateke tresnarik egokiena eta eskolak badu zer egitearik gaitasun hau lantzeko.

Bukatzeko, liburuaren egileak balio heziketa benetan eraginkorra izan dadin, hezitzaileen formakuntza handiagoa izan beharko lukeela azpimarratzen du.

*M. A. de la Caba*

FLICK, U. (2004)

*Introducción a la investigación cualitativa.* Madril: Morata

Flick irakaslea, Berlineko Alice Salomon Unibertsitateko katedraduna, ikerkuntza metodo kualitatiboetan aditua da. Bestek beste, orain argitaratu berri den liburu honetaz gain, honako hauek argitara eman ditu: *A Compa-*

*nion to Qualitative Research* (Londres: Sage, 2004), *Qualitative Research: A Handbook* (Reinbek: Rowohlt, 2000), *Psychology of the Social* (Cambridge: Cambridge University Press, 1998).

Azken urte hauetan ikerkuntza kualitatiboari buruzko lanak eta argitalpenak ugartu egin dira, ikuspegi eta metodo berriak sortu baitira. Liburu hau honen adibidea da. Berez, liburua Alemanian lehendik argitaratutakoaren bigarren edizioa litzateke eta egileak berak dioten bezala, urte gutxitan, honetarako aurreko edizioa osatu behar izan du batez ere ordenagailu eta programa informatikoen erabilerari dagokionez. Naiz eta aldaketa hauek ez izan eman diren bakarrak.

Flick irakasleak ulergarria den moduan azaltzen ditu metodologia kualitatiboaren teoriak, metodoak eta ikuspegi berriak. Metodologi honetan jarraitu beharreko diseinuak eta garapenak azaldu eta justifikatzen ditu zorrotzasunez. Ulermenaren izenean, adibide desberdinak erabiliz, informazioa biltzeko eta analizatzeko prozedurak eta teknikak adierazten ditu.

Egileak sei ataletan egituratu du lan hau. Lehen atalean (*Teoriatik testura*) bi kapitulu jasotzen ditu eta ikerkuntza kualitatiboan dauden ikuspegi desberdinak eta testuen eraikitzea eta ulermena jorratzen ditu. Bigarren atalean (*Ikerkuntzaren diseinua*), ikerkuntzaren diseinua zehazteko argibideak eskaintzen ditu. Hirugarren eta laugarren ataletan (*Hitzezko datuak* eta *Ikuste-datuak*) biltzeko estrategiak, prozedurak eta teknikak azaltzen ditu; batez ere elkarrizketak, eztabaida taldeak eta behaketak. Bosgarren atalean aurretik jasotako datuak analizatzeko erabil daitezkeen prozedurak eskaintzen dira. Eta, azkenik, seigarren atala (*Berriki gertatutako aurrerapenak eta etorkizuneko aurrerapenak*), berriena, ikerkuntza kualitatiboaren azken urte hauetan eman diren aurrerapenak eta etorkizunean emango direnak zehazten dira.

Liburu hau erabilgarria izango da soziologia, pedagogia, psikopedagogia, soziologia eta gizarte hezkuntzako naiz ikasle eta profesionalentzat.

*J.F. Lukas Mujika*

GARCÍA MÍNGUEZ, J. (2004)

*La educación en personas mayores. Ensayo de nuevos caminos.* Madrid: Narcea

Populazioaren geldiezinezko zahartzeak, pertsona helduen problemak lehenetsunezko gaia bilakatzen du. Horietako bat eta oso garrantzitsua, hezkuntzarako eskubidea da. Honetarako integritate pertsonaleko defentsarako tresnak bultzatzea eta honetan hezitzea beharrezkoa da, bereziki egoera txarragoa bizi diren gizon eta emakumeak.

Argi dago pertsona helduen heziketari buruzko tratamenduan gabezi nabariak daudela, haur edota gazteen heziketarekin alderatu ez gero.

Beste aldetik, gizon eta emakume helduek dituzten akatsen sorrera, bizimodu eskuragarriagoa oztopatzen dituen formazio-eza eta adimen-baliabide kopuru txikian egon daiteke.

Hau dela eta, liburuaren asmoa, pertsona helduen garapeneko beharra eta eskaerak asetzen dituen hezkuntzaren perfila aurkitzea da, aukera ongi informatua eta kritikoa posibilitatzen duen espazioa erreklamatzeko helburuarekin.

Lehendabiziko eta bigarren kapituluak, «La educación como derecho y necesidad» eta «Diferentes significados de la vejez según las ciencias sociales», aurrerapen zientifiko eta sozialetan jartzen dute arreta. Hirugarrena «Otra imagen y otros estilos de vida» eta laugarrena «La educación en personas mayores», pertsona helduen heziketaren kontzeptuaren inguruko gogoeta da. Bosgarren kapituluak «Estilos de Educación», heziketarako 6 tankera desberdinen deskribapenari heltzen dio. Azken kapitulua «El método de la educación interactiva en las personas mayores», gizaki-eraikuntzarako prozesuei irteera emateko egokiena den metodoaren aurkezpena da.

Egileak Psikologian lizentziatua eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan Doktorea da. Granadako Unibertsitateko irakaslea da eta halaber, drogamenpekotasuneko prebentzioan aditua. Beste jardueren artean, «Gerontologian Aditua» izeneko gradu-ondokoaren hainbat edizioen antolatzaile lana aipatu daiteke.

*J.A. Esnaola*

ROCHART, PH. (2001)

*El mundo del bebé.* Madril: Morata

Zer dakite haurtxoek? Zer sentitzen dute eta nola iristen dira inguruan eta beraien gorputzean gertatzen dena ulertzea? Zer hautematen dute eta zer dakite objektuei buruz? Nola ezagutzen dituzte inguruko pertsonak eta nola esleitzen dizkiete sentimenduak eta asmoak? Galdera hauen inguruan egiten du Philippe Rochatek bere hausnarketa *El mundo del bebé* liburuan. Bertan, haurtxoek mundua hautematen, sentitzen eta hausnartzen dute dirudien baino askotaz ere era konplexuago batez.

Autore honek haurtxoaren munduari buruz oraintsuko ikerketa esperimentalean egindako aurkikuntzen ikuskera orokorra eskaintzen digu. Aurkikuntza —bere ustez— garrantzitsu eta esanguratsuetatik abiatu, ez du gairik, egintza esperimentalik edo ikuskera teorikorik agortu nahi, baizik

eta haurtxoaren psikologiaren azalpen posible bat islatzea; intuizioaz, gertutasun teorikoz eta hamabost urtez bere kabuz eta beste ikertzaileekin landetuz burututako ikerketaz osotutako bere ideia.

Haurtxoak gure sorreraren «sekretu zaintzaileak» izango lirateke, mundu honetan gizaki modura bizi izateak esan nahi duen adierazpenik oinarrikoena. Lehen haurtzaroan egundoko buru-hazieraren potentzialak norberari buruzko kontzientzia izatera, kulturatzera eta besteekin eta sinbolikoki konpartitzen den adostasunezko munduaren bereiztera zuzentzen du. Haurtxoen mundu psikologikoa ezagutzea errazagoa izango litzateke hiru kategoria ontologikoak kontutan hartuko bagenitu: nia, objektuak eta pertsonak. Kategoria hauek funtsean esperientzia psikologiko bereziei dagozkie, ingurune desberdinak edo bilakaeraren oinarriko eremuak osatzen dituztenak, haurtxoen trebetasun zehatzak eta gaitasun orokorrak dakartzatenak, eta horretaz gain, beraien artean harremana eta elkarreragina dute.

Liburua giza lehen haurtzaroaren inguruko oinarriko gertakizunen aurkezpenarekin abiatzen da; haurtxoei buruz eta beraien bilakaeraren inguruko ikerketa esperimentalari «hondoko oihala modura balio dizkieten gako historiko, biologiko eta bilakaerakoekin. Beraz, psikologia esperimentalaren hastapenetatik haurtzaroaren objektu bezalako absentsiaz eta eremuan sarrera berriaz kontuak ematen ditu, hala nola, bere ezaugarri bereizgarri eta erabatekoek, bere heldutasun luzearen ondorioz eta bere haziera burtzoragarri eta mirezgarriaz. Baina honetaz gain, bere lanaren tesia azaltzen digu: nia, objektu eta pertsonekin burututako esperientziak oso ezberdinak eta kontrajarriak dira, jaiotzetik edo amaren umetokitik ere bereiztuak. Haurtxoaren munduaren osagaiak izatearekin batera, bere bizi mentalaren inguru oinarrikoak dira.

Ondoren, hiru honetatik lehenengoan gelditzen da: nia lehen haurtzaroan. Bizi mentala egiatan gorputz fisikoan finkatzen da. Gertakizun psikologiko nagusiak esperientziak esanguratsuak izateaz gain, burmuinaren alde berariazkoetan gertatzen diren erreakzio neurokimikoen multzo bereziak dira. Gauzatze hau haurtxoen beraien gorputza ikertzeko eta sistematikoki aurkitzeko joeran ere nabarmentzen da. Lehen haurtzaroan gorputza miaketa objektu pribilegiatua da; bere portaeratik parterik handiena berarenganako zuzentzen da eta beraren bidez, hurbileko ingurura. Gorputzaren hautemate esperientzia zuzena iraunkorra den bitartean, objektuena zein inguruko pertsonena ez da, eta ondoren norberaren gorputza kidea da, posible diren esperientzi psikologiko guztien euskarria. Haurtxoen beraien gorputza miatzeko joera goiztiarretik norberehautematea sortzen da, eta bertan norberezagutzaren bilakaeraren jatorria dago.

Lehen haurtzaroan objektuen munduak ez du pertsonenak bezala erantzuten, eta bere gainean gorputzak eragin ez duenean niatik at portatzen da. Biziazen bigarren hilabetetik aurrera, jarduera eta hautematea konbinatzen

dira eta portaera mailako aurrerapen garrantzitsua sortarazten dute. Azken hogeitaz gehien erabili den paradigma hobespenezko arreta eta ohi-tzearena izan da, eta bere erabilpenaz ondorioztatzen dena zera da, haurtxoek goiz-goiztik mundu fisikoa era arrazional eta konplexuaz prozesatzen eta espermentatzen dutela. Berehala hartzaile objektiboak bihurtzen dira, objektuak oinarritzko printzipio batzuen arabera portatzea espero dutenak, zein objektuak substantzialak izateaz, espazioa hartzen dute eta batera ezin dute bi leku desberdinetan egon. Printzipio hauek jaioberriarengan aurre eraginak daudenik ezin bada baieztatu, emaitzek inguruko gauzen gaineko jardura aktibotik haratago nola portatzen direnen behaketa eta begiespen lortuaren bidez jabetzearen berri ematen dute.

Aldiz, barneko eta pertsonen arteko harremanak ulermen sozialaren sorburu dira. Giza behaketaz eta begiespen lortuaz asko ikasi badaiteke ere, ez dute giza esperientzia konpartituak eskaintzen duen ikaste aukera ordezkatzerik. Haurtxoek ikasten dute besteekin elkarrekiko trukeetan parte hartuz. Giza kognizioa gizabanakoek besteen portaera behatu, kontrolatu eta aurre ikusteko gaitasuna garatzen duten prozesua bezala uler daiteke. Gaitasun honek ulermen maila desberdinak dakartza, adierazpen emozionalen ikuste bereizgarrien hautemate bereizketatik, portaeraren determinatzaile modura asmo eta sinismenen errepresentazio konplexuraino, gogamen teoriak biltzen duten bezala.

Aurrekoaz gain, haurtzaroan iragapen psikologiko erabakigarriak egongo lirakeke, haurtxoek bere buruaz, objektuez eta pertsonen duten aipatutako ulermenaren bilakaera prozesua sortu eta gaintzen dutenak. Lehen haurtzaroa hautematea kostatzen duen portaera aldaketa bizkor eta ikusgarrien aldia da. Haurtxoaren garapena ez da progresio leun eta lineala, baizik eta emaitzetan zein trebetasunen lorpenean azelerazioz, ageriko geldinez eta hainbat erregresioz definitzen dena. Bi hilabeteko iraultzak asmoa agertzea dakar, «kontenplaziozkoa eta aurreragarria» asmoa bera bihurtzen duena, bederatzi hilabetekoak besteak «eragile asmatzailea» bezala ulertzea dakarren bitartean. Funtzio sinbolikoaren iturburu hementxe aurkitzen da. Berehala jolas sinbolikoa eta simulaziozkoa, hizkuntza eta errepresentazioa agertzen dira, haurra giza espezie ezaugarri bereizgarriaren jabea bihurtzen delarik.

Azkenik, eta lehen haurtzaroan aldaketa ebolutiboak sortarazitako prozesu zein mekanismoen inguruan, autoreak maila ezberdinetan eragina dutela baieztatzen du: burmuinaren aldaketa neurofisiologikoaren maila mikroskopikotik, ingurune fisiko zein kulturalarekin gizabanakoaren elkarrengana motaren makroskopikotara. Maila hain ezberdinen arteko elkarrengana kantitate eta konplexutasunaren aurrean haurtxoaren garapenaren azalpen sinple eta behin-betikoak eskaintzea ez litzateke egokia. Ekifinalitatea, hasierako baldintza ezberdinetatik abiatuz eta ibilbide ezberdinak jarraituz

amaierako egoera bera lortzearen aukera, haur munduaren mugagabetasunaren arduraduna litzateke. Haurtxo bakoitza garapen emaitza ikusgarria eta apartekoa da; kausa eta baldintza anitzen arteko konbinaketa idiosinkratikoa, aldakortasuna eta egonkortasunarena, lehen haurtzaroaren munduaren esentzia osatzen duena.

*E. Herran Izagirre*

LUKAS, J.F. eta SANTIAGO, K. (2004)

*Evaluación Educativa*. Madril: Anaya

Hezkuntza ebaluazioa, gaur egun, pil-pilean dagoen gaia da. Kalitatea, hobekuntza, aurrerapena, e.a. behin eta berriz aipatzen dira hezkuntzaren inguruan eta jakina kasu guztietan non gauden eta nondik abiatzen garen jakin behar dugu. Horretarako nahi eta nahi ez egoeraren ebaluazioa egin beharko da. Lukas eta Santiagok, UPV/EHUko irakasleek, hezkuntza ebaluazioaren inguruko liburua atera berri dute. Liburu honetan hainbat atal bereiz daiteke.

Lehenengo atalean lehen kapituluaren hezkuntzaren ikerkuntza eta ebaluazioaren paradigmen azterketa sakona egin dute. Bigarren kapituluaren hezkuntza ebaluazioak historian zehar jarraitutako ibilbidea aurkeztu dute. Atal honekin bukatzeko, hirugarren kapituluaren ebaluazio-motak, osagaiak eta definizioak azaltzen dira.

Liburuko bigarren atalean hezkuntza ebaluazioaren esparru desberdinak planteatzen dira. Bertan, laugarren eta bosgarren kapituluaren programen ebaluazioa, ikasle eta irakasleen ebaluazioaren inguruko gorabeherak aurkezten dira.

Hirugarren atalak metodologiari heltzen dio. Seigarren kapituluaren hezkuntzaren ikerkuntzan erabiltzen diren diseinuak argitzen dira. Kontutan izanik, hauek, hezkuntza ebaluazioan aplikatu daitezkeela. Zazpigarren kapituluak, ebaluazioko edozein prozesuan derrigorrezkoa den informazioaren bilketa gaia lantzen da. Datuak biltzeko dauden teknika eta prozedura kuantitatiboak eta kualitatiboak eta jasotako informazioaren kalitatea aztertzen dira. Ondoren, zortzigarren gaietan, bildutako informazio horren analisiak (bai kuantitatiboak eta bai kualitatiboak ere) nola egin behar diren zehazten da.

Liburu hau, magisterio, pedagogia, gizarte hezkuntza eta psikopedagogiako ikasleentzat pentsatua dago eta eskuliburu gisa planteatuta dagoenez, bederatzigarren kapituluaren, aurreko zortzi kapituluaren landutako gai teorikoak modu praktikoa lantzeko ariketak aurkezten dira.

Liburuaren bukaeran, bibliografia zehatza azaltzeaz gain, bi eranskin oso erabilgarriak azaldu dituzte. Lehenengoan hezkuntza ebaluazioaren definizio desberdinak aurkezten dira eta bigarrenengoan Interneten, ebaluazioaren inguruan informazioa hiltzeko gune desberdinen helbideak azaltzen dira.

*J.K. Moreno*

ZULAIKA, L.M. (2004)

*Kirola egiteko 25 arrazoi*. Gazteiz: Eusko Jaurlaritza

Liburu honen asmoa da ariketa fisikoa eta kirola egitea zeinen garrantzitsua den jabetzen laguntzea. Osasuna daukagu jokoan; hori azaldu zuten autoreek aurreko liburu batean: *Kirola egiteko 30 arrazoi*. *Ariketa fisikoaren onurak osasunean*. Baina garapen pertsonal eta soziala ere jokoan daukagu, eta hori da, hain zuzen, liburu honetan azaltzen dena. Beraz argudiorik ez da falta kirola egiteko: osasun fisikorako dakartzan abantaila nabarmenez gain, ariketa fisikoa eta kirola oinarri-oinarritzkoak dira pertsonen ongizate eta garapen psikologikorako.

Egileak dioen bezala, lan honen asmoa kirol-jarduera guztiz osasungarria izan daitekeela gizakiaren arlo psikologiko eta sozialerako erakustea da. Ikuspegi psikologikoaz gain, ikuspegi sozial eta hezitzailearen aldetik kirola egitearen onurak era azaltzen dira.

Liburu hau hiru kapituluz osatua dago. Lehendabiziko kapitulua onura psikologikoei buruzkoa da. Onura hauen artean bizi-kalitatea eta auto-estimua hobetu, gogo-aldarteia igo, osasun mentala egokia lortzen eta adimena garatzen lagundu, depresio egoerak arintzea ditugu.

Bigarren kapituluan onura sozialak aurkituko ditugu. Hauen artean honako hauek aipatu daitezke: sozializazio-ahalmena, gutxitu fisikoen eta etorkinen integrazioa erraztu, portaera desegokiak eta antisozialak saihesten, emakumearen berdintasunaren aldeko borrokan eta eskola errendimendua hobetzen lagundu.

Azkenik, hirugarren kapitulua balio hezitzaileei dagokio. Hona hemen onura horietako batzuk: kiroltasuna eta joko garbia bultzatu, solidaritate-espiritua garatu, errespetua hedatu, auto-kontrola landu eta autodisziplina sustatu.

Kapitulu bakoitzean kirola egiteko arrazoi bat planteatzen da eta arrazoi horren inguruko gogoeta adierazten da, bai haur edo gazte, bai gurasoentzat ere. Liburuarekin bukatzeko 6 eranskinak eta hiztegia bat azaltzen da.

*J.A. Ortuondo*

DADZIE, S. (2004)

*Herramientas contra el racismo en las aulas.* Madril: Morata

Arrazakeria errealitate oso konplexua da. Arrazismoaren historia zabala eta mingarria da eta ez daude alde aurretik fabrikatutako erantzunak. Dena den, orientabide praktikoak ez badaude ere, irakasle, guraso eta orokorrean hezitzaileek eskarmentu handia dute arrazakeriaren kontrako borrokan. Egileak dioen bezala, arrazakeriaren aurkako jarrerak sustrai sendoak ditu eta XXIgarren mendeko eskolen erronka, jarrera hori eguneroko praktika bilakatzea da.

Eskola-instituzio, unibertsitate-ikastegi, gazte-elkarte eta gizarte-mugimenduetan egindako lanaren ondorioz garatu dira tresna hauek. Diskriminazioarekin amaitzeko erakundeei orientatzeko baliagarriak diren politika eta prozedurak aurkitzeko asmoz, 20 urtez egin da saiakera hau.

Liburu honen izaera praktikoa da. Egileak giltzarriak diren kuestioak nabarmentzen ditu, bai gela barruan, bai kanpoan, jarrera arrazistei aurre egiteko ondorengo ikusmolde eta estrategiak aurkeztuz: a) Hezkuntza premia bereziei erantzuteko eta lantzeko era integratuak, b) teoria eta praktika egokitzeko tresna eta proposamenak, c) ikastetxe osoa eta gela bakoitzarentzat erantzun estrategikoak, d) praktika egokien egiaztatze-zerrendak, e) geletan lan-esperientziak, f) irakasleriarentzako formazio eta gaurkotzerako jarduerak eta g) baliabide didaktikoak.

Liburu hau irakasle, zuzendari, orientatzaile, irakasleen formakuntzan parte hartzen dutenak, guraso eta zaindari, gizarte-hezitzaile, gizarte-langile eta unibertsitateko irakasle eta tutoreei zuzenduta dago.

Tresna-multzoa bezala diseinatutako liburua da eta arrazismoarekin lotutako arazoei aurre egiteko curriculum-proiektuen planifikazioa, garapena eta ebaluaziorako gisa erabili daiteke. Egileak berak dioen bezala, tresna hauen helburua material malgua eta eskuragarria eskaintzea da. Material hau irakaskuntza edo irakasle-garapeneko testuinguru desberdinetan erabili daiteke eta arrazismoari buruzko norberaren ideiak kuestionatzeko irakasle eta ikasleei laguntzeko baliagarria da.

Liburu honek bi zati nagusi ditu eta zati bakoitzean unitate desberdinak. Lehendabiziko zatia unitate batzuk honako hauek dira: arautegiaren garapena, arautegitik praktikara, jarduerak planifikatzeko estrategiak, eskolako giroa hobetu, berdintasuna bermatu, ... Bigarrenean, honako unitateak proposatzen dira: historia, estereotipoak, jarrerak, biolentzia eta erantzunak. Unitate bakoitzaren atalak honako hauek dira: a) laburpena, b) irakaskuntzaren emaitzak, c) adierazleak, d) elkarrizketa-gaiak, e) gelako jarduerak eta f) egiaztatze-zerrenda.

*A. Martinez*

BAZARRA, E., CASANOVA, O. eta GARCÍA UGARTE, J. (2004)

*Ser profesor y dirigir profesores en tiempos de cambio.* Madril: Narcea

Gaur egungo irakas-jardueran irakasleek duten funtzioa eta izan behar-ko luketenari buruzko gogoeta sakona bezain ordenatua egiten dute egileek. Egun hainbat alorretan aldaketa garaia izanik ere, egileek heziketaren gaineko hausnarketa egiten dute, eta irakasleek aldaketa garai honetan murgildu behar dutela ere aldarrikatzen dute.

Liburuaren hasieran agertzen dute eraldaketa testuinguru honek balio duela irakaskuntzaren esparruan aukera berriak sortzeko eta horietaz baliatzeko. Horretarako proposamen didaktikoa egiten dute, non zergatik irakatsi behar den, zertarako eta nola zehazten duten. Beti ere ikuspegi humano batetik, autoreen aburuz, non irakaslearen eta ikasleen arteko erlazio oinarritzat hartzen duten. Horretarako elkarrizketaren eta entzuketaren pedagogiaren aldeko aldarria argudiatzen dute.

Liburuaren bigarren atalean irakasleak nola zuzendu, behar diren agertzen dute autoreek, komunikazioaren garrantzia, talde-lana, lidergoa eta zentroaren harreman-giroa oinarritzko zutabetzat hartuz. Gainera proposamen teorikoaz gain, hori guztia praktikan nola gauza daitekeen adierazten da liburuan, hainbat adibide eta proposamen didaktikoekin hornituz. Horixe da, hain zuzen ere, liburuaren gauzarik baliagarriena praktikara bideratzen dutela arreta, horren atzean dagoen oinarri teorikoa ahaztu gabe.

*A. Huegun Burgos*

DEWEY, J. (2004)

*La opinión pública y sus problemas.* Madril: Morata

Hezkuntzaren soziologiaren alorrean koka genezake Deweyren lan hau. Gizarte kapitalistaren kritika zorrotza eta gupidagabea egiten du egileak, non komunikabideek ezartzen duten kontrol zorrotzak modu zehatzean deskribatzen duen.

Horren aurka agertzeko Estatu Demokratikoaren beharra aldarrikatzen du, non herritarron arteko gogoeta, parte hartzea eta eztabaida ezagutzaren sorburua izango diren. Autorearen iritziz, ezaugarri horiek bere ahalmen osoz garatu ezean nekez hitz egin genezake demokraziaz. Horren haritik, irakurleak kritika gogorak ikusi ahal izango ditu politika egiteko moduari.

Gaur egungo politikari hain zuzen ere. Izan ere, nahiz liburuak 1927an argia ikusi, gaurkotasun handia du.

Zentzu horretan, Deweyk ez du demokraziaren funtza instituzioetan ikusten soilik, behar-beharrezkotzat jotzen du bizitza publikoa aktiboa, non herritarren parte-hartzea etengabekoa izango den, eta Estatuaren monopoliotik at egongo dena. Esan daiteke, Dewey aitzindaria izan zela bere garaian, berak XX. mende hasieran irekitako ildoak gaur egungo hainbat pentsalarik hartu baitute. Gainera, hezkuntzaren profesionalen ikuspegitik liburu honetan agertutako hausnarketak oso baliagarriak dira, bai norberaren funtzio pedagogikoaren gaineko gogoeta egiteko baita irakas-jarduerarena ere.

*A. Huegun Burgos*

PEREZ ESCLARIN, A. (2004)

*Educación para humanizar*. Madril: Narcea

Eskuarki argitaratzen dira azken urteotan Hezkuntzaren alderdi teknikoaren gaineko liburuak. Ez da harritzekoa ere, gizarteak bere osotasunean teknifikazioari gero eta bide zabalagoa irekitzen dion honetan. Alabaina, horren arriskuen artean hezkuntza-jarduerak nahitaezko eta aurretiazko baldintza behar duen baloreen inguruko hausnarketa ahaztearena dago. Izan ere, uste dugu lehenago dagoela baloreen eztabaida (zertarako Hezkuntza?) eta ondoren eztabaida teknikoa (nolako Hezkuntza?).

Egilearen hausnarketa kokatzeko gakoak, aurkezten digun egungo gizarte-testuingurua da, gizatasun eza eta biolentzia erabat nagusitu diren gizarte-alegia. Zenbait pentsalariren hitzetan oinarrituta, «hutsaren aroan» (Lipovetski) edota «inertzia eta pasibitate garaiotan» (Castradiis) bizi garela ondorioztatzen du: «sentsibilitate ezaren eta asperduraren gaitzek jotakoa da gure gizarteak, eta gaitzaren sustriaren bila eta aurka joan baino, erosteko, konpromisorik gabeko sexurako, telebistarako, alkohola eta drogetarako menpekotasuna suspertzen du» (17. orr.).

Azken batean, «light gizakiaren» garaipena litzateke (Rojas). Ildo bere-tik, informazioaren espektakularizazioa nabarmendu da, non berriak, espektakulu huts gisa tarte batean gozatu ondoren, zakarrontzira botatzen diren, inolaz norberaren erantzukizun bakarkako eta sozialari dei egin gabe. Ondoren biolentzia fisikoaren irudi sozial bortitzak ekartzen ditu orriotara, gordinegiak eta Europako eguneroko bizimodutik agian gehiegizkoak, nahiz eta etxean bertan biolentziaren adierazpen esplizituaren inguruan arazorik badugun. Bistatik ez da galdu behar da liburuak Venezuelako egu-

nerokotasunean duela oinarri. Izan ere, egilea, Antonio Pérez Esclarín pedagogo, filosofo, hezitzaile eta irakasle da Caracas hiriko Simón Bolívar Unibertsitatean.

Bada, testuinguru horretan, hezkuntzari dagokion zeregina pertsonen duintasuna berreskuratu eta gizatasunaren arabera bizitzen irakastea litzateke Pérez Esclarínen aburuz; hau da, pertsona izatera iristeko ikasbide eta abentura kilikagarria berretsiko duen, eta pertsona berriro gauza guztien neurri gisa jarriko duen hezkuntzaren ikusmoldea aldarrikatzen du.

Bizitza nor bere bidea asmatu, bere burua eraiki, eta barne-barneko aukeren hazia abiaraztea da. Izan ere, jaiotzearekin batera bizia eman zigiten, baina ez egina; bide eta aukera irekitzen zaizkigu aurrean, eta horien artean nor bere bidea osatu beharrean gaude: biziaren uren laster sakonean murgiltzea ala ertzetatik bizitzea, bakoitzaren eskuetan dagoen aukera da, zentzunaz jantzitako bizia bizitzea, ala azalekoetan egitea.

Horren kariaz, norberaren eta guztion esku dago baita gizarteko biolentzia-zama areagotzea, ala bakearen eraikitzaile bihurtzea. Egileak, liburuan zehar, biolentziaren kulturaren muinean egoismoa dagoen gero eta konbentzituago dagoela erakusten du; alabaina, maitasuna biolentziaren indarrari gailenduko zaiola uste du. Hortik dator maitasunean eta maitasunerako hezitzearen garrantzia, hortik norberaren eta besteen askatasunerako hezitzea eratortzen baita nahitaez.

Egileak, gizarte gogor, zantar eta elkartasun gabeko gizartea marraztu, eta gizatasunez bizitzen lagunduko duen Hezkuntzaren ezaugarriak erakutsi ondoren, liburuaren azken atalean hausnarketa irakurleengana helarazi nahi du. Horretarako Pedagogiaren bost bokalak proposatzen ditu, alegia, bokal bakoitzarekin hasten den ezaugarri jakin batzuen sorta, besteak beste (eta euskarara ekarriak, gazteleraz baitaude, jakina, jatorrizkoan): maitasuna, poza, autoritatea, integraztea, lan taldea, utopia, aisialdia, entzutea... bakoitzaren inguruan azalpen teoriko labur batzuk eman ondoren, hezitzaile diren edota izan nahi duitenen zako hausnarketarako galdera sorta txiki bat plazaratzen du egileak.

Esan behar hausnarbide horretan lagun eta gidari izan duela egileak kristau fedea, eta salbazio Lur planetan gauzatu behar den moldetan. Gora go esan bezala Simón Bolívar Unibertsitatean irakasle eta ikerle aritzeaz gain, baditu egileak bestelako betekizun batzuk, eta horien artean «Fe y Alegría» elkarteko Nazioarteko Federazioko Heziketa Popularrerako Programa koordinatzen du. «Fe y Alegría» Caracasen sortu zen 1955.ean, Venezuelako gobernuan Marcos Pérez Jiménez diktadura zuzentzen zuenean. Elkartearen lehen zeregina gizarteko sektore pobretuenei gutxieneko hezkuntza baldintzak eskaintzea izan zen.

*M. Unamuno Plazaola*

SICHRA, I. (biltzaile) (2004)

*Género, etnicidad y educación en América Latina*. Madril: Morata

Liburu honen paratzaile eta biltzailea, horren izen berezi eta musikaduneko Inge Sichra, austriar soziolinguista dugu. Vienako Unibertsitatean Doktoretza titulua lortu ondoren kitxua hizkuntzaren susperraldiaz Cochabambako komunitate indigenetan., lanean hasi zen hantxe bertan, Boliviako Cochabamba inguruan, kitxuar jatorriko haur eta helduentzako irakur-idazkera programetan.

1996tik Alemaniako Lankidetzak Teknikoak diruz lagundutako PRO-EIB Andes programako dihardu lanean, Andeetako Herrialdeetarako Hezkuntza Interkultural Elebiduneko Prestakuntza Programan alegia. Programaren egoitza San Simón Unibertsitatean kokatzen da, Cochabamban bertan, non Sichra doktorea irakasle (lengoaia esparruan) eta aholkulari eritzen den... eta horrez gain, Interkulturalitatea eta elebitasuna hiri inguruetan izeneko ikerbidea zuzentzen du.

Liburuak hamar lan biltzen ditu, hausnarketa eta ikerketak, guzti-guztiak Latinoamerikan hizkuntzaren eta generoaren artean ezartzen diren harremanetan inguruan. Batzuk lan orokorrak dira, esaterako sexuaren arabera hezkuntzarako aukera desberdinei buruzkoa gizarte indigenetan. Bestetzuk, herrialdeetako jakin batzuetako (Mexiko, Peru, Kolonbia, Guatemala eta, batez ere, Boliviakoak) herrialdeetako etnia jakin batzuen testuinguruan kokatzen dira; gure europar begietara ezagunenen artean maia, nahuatl, mazahuatl, kitxua, aimara kulturak daude, baina horiekin batera, baita beste batzuk. Alabaina, artikuluen jatorria Mintegi bat denez, bertan guzti-guztiak helburu jakin batzuen mugetara ekartzeko saioa egon da, honakoei alegia:

- Emakume eta neskato indigenen artean jazotako hezkuntza-bazterkeria eta -atzerapen egoeren analisia, etnia bereko gizonezkoekin konparatuz gero.
- Generoa eta etnizitatearen arteko harremanen inguruko hausnarketa eta proposamenak, feminismoaren eta antropologia kulturalaren ikuspegietatik.
- Genero harremanak sentsibilitatez jantzitako etnia eta kultur ikuspegi batetik lantzeko hezkuntza-politika eta -ikerketarako proposamenak.
- Genero harremanei Latinoamerikako hezkuntza-sistemetan heldu eta ekiteko estrategia eta gomendioak.

Liburuaren bost atalek xede horiei erantzuten die, oro har:

1. Lehen atalak generoaren, etnizitatearen eta hezkuntzaren arteko harremanen sare konplexua erakusten dute. Egileek, Mexikoko eta Peruko kasu-azterketak bitarteko, harreman horietan nabarmentzen di-

- ren bazterkeria egoeraren lekukotza ugari ematen digute, nahiz eta hezkuntza- eta politika-eragileek ukatu edo ezereztatu sarri askotan.
2. Bigarren atala herri indigenetako genero harremanei buruz dihardu. Liburuko lanetan bi jarrera desberdinen ematen du: batetik rolen arteko osagarritasunaren defentsarena, bestea, aldiz, egoera horren salaketarena.
  3. Hirugarren atalak Generoa eta etnizitatearen arteko harremanen inguruko hausnarketa eta proposamenak biltzen ditu, feminismoaren eta antropologia kulturalaren ikuspegietatik. Gobernuz kanpo erakunde zein erakunde publikoetatik bultzatzen diren politika kontrasesanekoei, eta ikuspegi estu eta hertsietatik abiatzen diren ikerlariak ondorioak aztertzen dira zorrotzasunez.
  4. Laugarrenak, hezkuntza formalaren esparruan sentsibilitatez jantzi-tako jarrera eta joeretan oinarritutako genero harremanak lantzeko ekintzak aurkeztu ditu, Mexikon, eta Guatemalan kokatuta.
  5. Eta, azkenik, bosgarren atalak, nazioarteko lankidetzan oinarritutako proposamen bat aurkezten du, genero harremanak Latinoamerikako hezkuntza-testuinguruetan lantzeko.

Hara, begibistan da, azalean behintzat, gure Mendebaldeko kulturaren mundutik oso bestelako batean interesa dutenentzako duela liburuak interes gehien, baina, hala ere, ezin bukatu beste irakurketa posible —eta gero eta beharrezkoago bat— iradoki gabe: izan ere, EHUKo Lankidetzarako Bulegoak ez du alferrik orain urtebete abian jarri Praktika Programa Garapenerako Lankidetzaren Proiektuetan izeneko programa. Horren barruan, aurren gure ikasleen arteko 50 inguru Latinoamerika eta Afrikako zenbait herrialdeetara joango da, praktikan kulturen arteko ikuspegiaren moldeetan burutu asmoz; ikuspegi horren barruan, ez al du lekua, eta leku berezia, genero-ikuspegiak?

*M. Unamuno Plazaola*

CLEMENTE LINUESA, M. (2004)

*Lectura y cultura escrita*. Madril: Morata

María Clemente irakasle titularra da Salamancako Unibertsitatean, Didaktika eta Eskola Antolaketa sailean. Batez ere irakurketari eta irakurketaren didaktikari buruz ikertu, hausnartu eta idatzi du., besteak beste La enseñanza de la lectura. Enfoque psicolingüístico y sociocultural eta Enseñar a leer izenekoak, 1999an eta 2001ean argitaratuak, hurrenez hurren.

Izan ere, irakurmena eta idazmena menperatzeak zibilizazioen garapena ulertzeko ezaugarri erabakiorra da. Trebetasun horiek pertsonak norba-

naka gizarte harremanen sarean nola kokatzen diren baldintzatu izan dute; irakurtzeko eta idazteko gaitasuna garatu ahala, demokratizatu egiten da hezkuntza-prozesuetan nahitaezko den tresna. Irakurmenaren erabilerak eta moldeak berezitu egin dira Historian zehar eta, aldi berean, baita irakurtzea eskatzen diguten egoerak. Nola ez gure gizartean, besteak beste Informazioaren Gizarte gisa ezagutzen dugun honetan.

Liburu honetako hiru lehen atalek irakurketaren eta irakurleen Historia labur bat jasotzen dute, batez ere irakurketaren erabilpen sozialen ikuspegitik. Laugarren atala kultura idatziaren teknologien inguruan osatzen du Clementek, dela alfabetoa, dela liburua, dela inprenta. Hiru iraultza bereizten ditu egileak: alfabetoarekin lehena, moldiztegiarekin bigarrena, teknologia berrien eskutik datorkigu hirugarrena, azken urteotan etorri gainera; pentsalari italiar baten haritik (Rafaelle Simone: *La Tercera fase. Formas de saber que estamos perdiendo*. Madrid, Taurus, 2001), informazio berria geureganatzeko moduaren aldatzeak informazio hori prozesatzeko keta ere badakarrela egiaztatzen da.

Azkenik, azken bi atalak irakurmenaren esparru estrategiko eta espezializatu batean jartzen du arreta: eskolan alegia. Berari dagokio irakurleak sortzeko erantzukizuna, dela irakurtzeak eskatzen dituen trebetasunen ikuspegitik, dela irakurtzeko gogoia eta zaletasuna piztu eta lantzearen aldetik. Egungo eskolari zeregin berriak gehitu zaizkio, hain zuzen ere teknologia berrien eraginagatik, orain artekoan bezala ikasleei irakurtzeko gaitasunak irakatsi eta irakurtzeko zaletasuna pizteaz gain, euskarri berriekin bat datozen irakur moldeak ere kontuan izan beharko baititu.

Orotara, 120 orrialde inguruko liburua erraz eta gustura irakurtzen da, ez du eskatzen derrigorrez gaian aditua izatea.

*M. Unamuno Plazaola*

## **JASOTAKO LIBURUAK**

ALVAREZ-URIA eta VARELA, J. (2004)

*Sociología, capitalismo y democracia. Génesis e institucionalización de la sociología en Occidente* Madril: Morata.

ZABALZA, M.

*Diarios de clase*. Madril: Narcea.